

B

BARREN

TOKIKOM

Eskutik eskura

Basherri kontsumo taldea






ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

www.elgoibarkoizarra.com



Noemi
Otegi

Urte berri on, Aina-
ral! 2011ri ekin diogu, eta bes-
te behin, asmo berri bat urte berrira-
ko. Zure asmoetako bat agian erretzeari uztea izango da, eta
asmoa ez bada, beharra izango da akaso, ez baitzaizu erreza
izango edozein lekutan erretzea urte berri honetan!



Ainara
Sedano

“Agian gehiegizkoa izango da lege berri hau, baina nik gustura hartuko dut”

Egia esaten badizut ez zait txarra iruditzen lege berri hau. Agian
gehiegizkoa izan daiteke askorentzat, baina nik gustura hartuko dut.
Guk ez dakigunez geure buruari mugak jartzen, beste batzuek jarri be-
harko dizkigute. Polemikia izango da zeharo, eta zaila martxan jartzea.
Nork kontrolatuko du parkean erretzen ari den gurasoa? Zerbitzatzeaz
gain, zaindari lanak ere egin beharko al ditu tabernariak? Galdera asko
sortuko dira, hamaika eztabaida, eta mutur luzea ere jarriko du batek
baino gehiagok, baina azkenean, guztiok irabaziko dugu; hori da behin-
tzat nik uste dudana. Tristeia lege bat behar izatea da, baina askotan
erakutsi dugu hori dela bide bakarrenetakoa. Bagenekien edanda gida-
tzea arriskutsua zela, baina puntuak kentzen hasi diren arte ez gara es-
pabilatu. Erretzen dugunean inguruan ditugunei ere egiten diegu kalte.
Jakin badakigu, baina orain, legeari esker, agian tamaina hartuko diogu
baita erretzeari berari ere! Edo ez...



Urte berri on! Egia esan, tabernatik irten
eta erropetan tabako usainik ez izatea zoraga-
ria iruditzen zait, baita hurrekin kotxean erre
ezin izatea eta abar, baina, bestalde, debekua de-
bekatzearen aldekoa naiz ni neu. Debeku askore-
kin bat nator, baina iruditzen zait azkenaldian ho-
renbeste gauza gabiltzala debekatzen eze beste he-
rrialde askotako bizimodurantz ari garela gerturaten, eta
egia esan, ez zaizkit gehiegi gustatzen bizimodu horiek.

Batzuetan pentsatzen dut igandetan autoa garbitu eta etxean
kolorezko pastelxoak egitea izango dela urte batzuk barru gure en-
treenimendua (Ah! Ez! Koloratzaileak ere debekatuko dituzte-eta!).
Horrenbeste nahi dugu dena lotu eta babestu, iruditzen zaidala las-
ter dena egongo dela debekatuta: erretzea, edatea, haurrak zigor-
tzea... Nik erre izan dut, edan ere egin dut, bakunarik gabe bidaia-
tu dut, baserriko esnea edan dut, eta umetan, zortzi laguntxo ere ibili
izan gara lagun baten aitaren autoan, batetik bestera. Maisuren
baten edo besteren baten kokotekoa ere jasotakoa naiz, eta ama-
ren zaplaztekoren bat edo beste ere bai, (merezitakoak baino gu-
txiago seguruen) eta, beharbada, gauza gomendagarriak ez diren
arren, okerragorik ere badagoela esango nuke.

“Erretzea hain txarra bada, utzi diezaiotela orduan tabakoa saltzeari”

Nik neuk behintzat ez daukat inongo traumarik. Eta erretzea
hain txarra bada, utzi diezaiotela orduan tabakoa saltzeari. Hala nor-
bait ateratzen ari ote da probetxurik tabakoa saltzetik? Nik esango
nuke baietz.



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegia
eta
ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

BARATZETIK PLATERERA

Baserritarren eta erosleen artean harreman zuzena bultzatu eta lurrari lotutako nekazaritza eredia sustatzeko jaio ziren basherri taldeak, Gipuzkoako EHNEk eta Biolurrek lagunduta. Bitartekaririk ez dago talde hauetan, baina bai ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko hitzeko hitzarmen bat; bestera esanda, elkarri laguntzeko konpromisoa. Batetik, hemen bertako barazki eta frutak eskuratzen ditu kontsumitzaileak, sasoiari sasoikoak, eta bestetik, baserritarrek “prezio duin batean” saldu ditzakete produktuak. Gipuzkoan, 30 bat talde osatu dira dagoeneko, eta Elgoibarrek ere badu bere basherri taldea (<http://basherri.wordpress.com/>).

Ainara Argoitia

“Zer jaten dugun ere ez dugu jakiten sarri, eta kezka horrek eraman gintuen gu talde honetan izena ematera, batez ere gure umean pentsatuta”, aitortu du Ion Ulibarri Elgoibarko basherri taldeko kontsumitzaileetako batek. “Eguenetan merkatura joanez gero, baserritarrek atzapar biren tamainako porruak eskaintzen zizkidaten, eta supermerkatuan, berriz, sekulako porruzarrak ikusten nituen gero. Denda handi horietan, sagarrak ere moldera egindakoak ziruditen, eta horrek guztiak zer pentsatu handia ematen zidan. ‘Edo batzuk oso inozoak dira eta besteak oso argiak, edo desproporzio horren atzean beste zerbait dago’ pentsatzen nuen neure barrurako”. Kalitatezko ziurtagirien berri ere bazuen, baina garbi zuen era horretako ziurtagiririk izan ez arren, baserritarrek merkatuan saltzen zituzten produktuek bazutela kalitatearen bermea. “Garantiarik onena porru, aza edo dena delako hori lurra berak markatzen duen eritimoan hazitakoa izatea da”, nabarmendu du.

Beste askok bezala, azokan ikasi zuten Ulibarrik aza neguko barazkia zela, eta tomatea, udakoa. “Ni kaleko umea naiz, eta supermerkatu joan eta urte osoan denetarik ikusten badut, nola jakingo dut ba hori. Orain badakit, adibidez, gaur erosi ditzake-dan tomateak ez direla nik nahi bezala hazitakoak; ez direla modu tradizionalean, era naturalean, ekoiztikoak”. Etxean jaten duten hori non eta zelan ekoitzi duten jakiteari garrantzia handia ematen dio Ulibarrik, uste duelako elikadurak lotura handia duela osasunarekin. “Urte gutxian minbizi kasuak asko ugarritu dira, eta ziur naiz pestizidek eta halakoek zerikusia handia izan dutela horretan. Lehen ez zegoen



Juan Martin Urreisti, Miriam Onaindia, Ion Ulibarri Lier semearekin eta Pedro Alberdi.

halakorik, eta horrek zerbait esan nahiko du ba!”, dio. Iritzi berekoak dira Miriam Onaindia eta Juan Martin Urreisti Elgoibarko basherri taldeko ekoizleak ere. Aspaldi egin zuten nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua, eta bada denbora zuzeneko salmentan dihardutela. Biolurren bitartez jakin zuten Gipuzkoan Basherrri taldeak sortu zirela, eta “alternatiba egokia” iruditu zitzaien.

“Gaur egun hazietatik hasi eta produktua merkatura iritsi arteko kate osoa lau-bost multinazionalak kontrolatzen dute. Haiek zuzentzen dute nekazaritza politika, eta baserritarrak harrapatuta daude. Zer ekoizti ere esaten diete baserritarrei, eta azkenean haien menpe bizi gara. Industriak erabakitzen badu baserritarrei ez diela esnerik erosiko, Kaikuk egin duen antzera, gure baserritarrak salduta gelditzen dira, esnearekin zer egin ez dakitela”, dio Pedro Gipuzkoako EHNEko teknikariak. Baietz dio Miriamek ere. “Gure kasuan, guk ezin dugu supermerkatu handiekin lehiatu”. Supermerkatuetako prezioekin lehiatzeko, produktua ia debalde eman beharko lukeke ekoizle txikiek, eta ondorioz, dirua galdu. Hala, salmenta zuzena dute produktuei aterabide bat emateko modurik duinena.

“Duintasuna da hitza. Gure produktuak prezio duin batean saldu ditzakegu –Ordiziako azokako prezioetan–. Basherrri taldeetako kontsumitzaileek estimatzen dute gure produktua eta aintzat hartzen dute egindako lana, eta hori eskertzekoa da, askok ez baitakite baserritarrek zer nolako lana egiten duten ingurua garbi mantentzeko. Baserriak garbi badaude, baserritarrengatik da, eta gu igandetan mendi ibilaldi bat egitera goazenean bideak garbi topatzen baditugu ere, baserritarrei esker da”, nabarmendu du Miriamek.

Talde autonomoak

Hiru dira orain arte sortu diren Basherrri taldeek betetzen dituzten baldintzak: hemen bertako produktuekin lan egitea, garaian garaikoa eskaintzea, eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko hartu-emanen zuzena izatea. Hala ere, talde hauek guztiak autonomoak dira, eta batzarretan erabakitzen dute zelan jardun. Elgoibarko basherri taldeko ekoizleek, adibidez, nekazaritza ekologikoa lantzen dute, baina hori ez da derrigorrean baldintza bat. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko konpromisoa bai, ordea. Izan ere, gutxieneko konpromiso bat ezinbestekoa da



Martitzen iluntzetan banatzen ditu produktuak Miriam Onaindia ekoizleak Elgoibarren.

basherri taldeen filosofiar eusteko. Elgoibarren, urtebeterako konpromisoa hartu zuten. Hala, urte osoan zehar, astero, kontsumitzaileek sasoiari sasoi barazkiz betetako otzara bat jasotzen dute, eta asteroko konpromiso horri esker, ekoizleek hurrengo urtaruari begirako planifikazio bat egiteko aukera dute.

Garaian-garaian baratzak ematen duena jasotzen du kontsumitzaileak otzaran

Otzara berdina denentzako

“Bi otar mota ditugu. Osoa eta erdia, familia handien neurri prestaturakoa lehenengo, eta familia txikiagoentzako bigarrena”, azaldu du Miriamek. Hala ere, jakiei dagokionean, otzara guztiak berdinak dira. Ortuak ematen duenaren arabera osatzen dute otzara ekoizleek, eta erabaki osoa haiena da. “Kartara lana egitea saihestu nahi da, dagoenean dagoena kontsumitzeko filosofia sustatu nahi delako”, zehaztu du Urreistik. “Guk ez dugu jakiten otarrean zer dagoen etxera eramanez. Baratzak ematen duena jaten dugu. Era horretan, inoiz jan gabeko barazkiak sukaldatzen ere ikasi dugu. Guretzako

oso aberasgarria da, eta baserritarrentzat oso lagungarria”, esan du Ulibarrik. Hala ere, kontsumitzaileak ere badu hitza, jakina. “Bilerak oso aberasgarriak dira. Ekarritakoarekin aste bukaerara iristen ez bagara, edo hemendik edo handik gehiago behar dugula ikusten badugu, ekoizleari jakinarazten diegu, eta modu horretan baratzaren gaineko planifikazio horretan ere parte hartzen dugu, zeharka bada ere”, dio Ulibarrik.

Martitzenetan banatzen dituzte otzarak Miriamek eta Juan Martinek, iluntzean, 19:00ak aldera. Bezero guztiak batzen dira Plaza Txikian, eta hantxe egiten dute salerosketa. “Hori ere abantaila bat bada kontsumitzaileontzako, batez ere laneko ordutegia dela-eta azokara joateko aukerarik ez dugunontzat. Eskura ematen digute jana”, azaldu du Ion Ulibarrik.

Zuzeneko salmenta baino gehiago dago, baina, basherri taldeen oinarrian. Izan ere, kontsumitzaileek baserriko lana ezagutzeko aukera ere badute. Aldiro ortua ikusteko aukera dute, jaten ari direna nola lantzen duten ikusteko, eta horrek harreman berezia sortzen du bi aldeetara.

Momentuz zazpi lagunek osatzen dute Elgoibarko taldea, baina taldea handitzeko irrikaz daude kideak. Urtarrilaren 18an egingo dute hurrengo batzarra, Kultur Etxeko Sotoan, 19:00etan, eta interesatuta egon daitezkeen herritar guztiak deitu dituzte bertara. Era berean, harremanetarako email bat ere badu taldeak, edozein argibidetarako: elgoibarkob@gmail.com.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Altzolär Bahnhof

Behingoz, kotxea Mendaron utzi eta Elgoibarko Gabon Zahar azokara autobuz-erreturaz etortzera animatzen zara. Bueltarako, trenak aukeratzen duzu. Gorunzkoan: Mendarar-Aingeru Guarda-Altzola-San Antolin eta Elgoibar. Bueltan. . .

Pik-pik-pik-pik trenak ia atekak itxiztatzen batera, tiraka Mendarora martxan doala, eseri aurretik, konturatu zara jada trenaren abiadura moteltzen hasten dela, eta atekak oraingoan irekitzen! King-Kong parean agurtu berri duzun pertsona bera "aupa, aspaldiko!" esanez igoko da *apeadero* berrian.

Geralekukoa zure aldamenean ez bada esertzen, leihotik erretratu berriak ateratzeko parada izango duzu. Ur ertzerako agertutako ubarroi eta lertxunak, adarretarako plastikoa geldoak bailiran; muturra ur azalez kanpora daramaten lasunak, hurrengo estolderia non dagoen galdetuz modura... Aldiz, geralekukoa pare-parean jartzen bazaizu, aspaldiko institutuko paisaiak baino ez dituzue begiztatuko. Eta pozik "Hi, zelan zahartu haizen, ezta?" esaten ez dizunean.

Dena dela, kotxeari bezala horri ere kasu handirik egin gabe, bagoiaren barrualdeko itxurari errepikatzen diozu: hego-amerikarrak, musulmanak, ekialdeko europarrak, geu... denok batera, bata bestearen ondoan goaz, erosi berri ditugun labeldun produktuak eskuartean ditugula, primeran. Jada azkeneko bagoia ez da existitzen. Atsegin ez ziren grafitiez eta leloez josita dagoena ez da existitzen.

Psssst! Ordura arte ixilik zetorren geralekuko lagunak, tonu baxuan, zure pentsamentuak irakurri izan balitu bezala, azkeneko bagoia San Antolingo geltokira zihoan tunel ilunean gorderik dagoela esaten dizu; "agintariek hurrengo erabakia hartu arte", azpimarratu du.

Entzundakoaz pentsatzen zatotzela, laster, Altzolako bainuetxea trenaren koloreko margotuta ikusiko duzu, edota jauregiko begiratokien kristal... "Aiba!", pentsatzen duzu. "Trena ez da Altzolan gelditu! Ostia! Noiztik ez da trena Altzolan gelditzen?"

Bat-batean, hango begiratokien kristalak bezala, zure betiko mundu harmonizatuaren eskema suntsituta, ikono berriak ezartzen hasten zara: Elgoibarren trena hartu, Toletzeko geralekua gogoan, Altzola trenetik agurtu eta Mendarar. Listo.

Klingeln-braust-zerbricht! Copiar y pegar.

Atzean gelditzen dira Altzolan trena gelditu aurretik, guztiz jaisten ez ziren leihotak zahar haizetatik burua atera eta trenaren zain zeudenak eta, era berean, jaisten zirenak zenbatzeko joera.

Errepide bazterrean egoten ginenean bezala; behin gutako bakoitzak kolore bat aukeratu, kotxea noiz etorriko zain egoten ginenekoa.

Edota aurreko bagoietatik zetorren pika-pika saihestu nahian, ihesean bagoiak zeharkatu eta Altzola noiz iritsiko zain izaten genituen estualdiak.

Trena geratzen zenean, geltokitik kanpora salto egin eta trena martxan jarri au-

rretik, aurreko bagoietara sartzeko egiten genituen korrikaldiak.

Altzola pasatzea izaten zen helburu nagusia. Gure Grenzübergangstelle. DDR garaian Ekialdeko Berlinera igarotzeko U6 lineako Bahnhof Friedrichstrassea. Behin Altzolako muga gaintuta, pikak antzematen bazintuen, Debaraino zindoazela besterik ez zenuen esan behar, Mendarar kanporatua izateko.

Gaur biletea soinean nuela etorri naiz Mendararaino, baina pikabroia ez da azaldu. Biletea makinako zirrikitutik sartu beharrean tornuaren gainetik salto egin dut, emozio pixka bat izatearren.

JL Zubiaurre ☞

Laster arte, Sabin

Borrokari gogor eutsiz euskaltzaleen eredu, ideiak oso garbiak abertzaleen sostengu. Abenduak eramana gaixotasuna gailendu, etsipenezko uneak esperantzatik ere du, Gorbeia aldera begiak denok begira ditugu zuk ereindako hazia loratzen badakusagu, Sabin, laguna, bihotzez zugaz zorretan gaude gu: ta zuek hasitakoa tinko jarraituko degu

Elgoibarko EA ☞

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etzegibel MAKETATZAILEA Zaldua Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteberu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Mendaroko ikastolaren aurreko apar-kalekuan bi pibote jarri dituzte, eta arris-kutsua dela uste dut: “Ez da denbora asko Mendaroko ikastola pareko apar-kalekua berritu dutela, eta egia esan oso ondo gelditu dela iruditzen zait. Bazen ordua, egia esan. Hala ere, sarrerako bi piboteak arris-kutsuak direla iruditzen zait, behetik zatozela nekez ikusten delako haietako bat. Ez dakit kendu daitezkeen edo ez, baina behar-bada, ez legoke gaizki pibote biguinoak jartzea”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkolzarra.com 943 744 112



Txalo handi bat Gabon Zahar ferriako antolatzaileei: “Ederra izan da Gabon Zahar feria. Jende asko eta giro bikaina egon zen herriko kaleetan, eta primeran pasatu genuen. Ikastolako txosnan sahieskia jan genuen, ondoren elkartasun taloak, eta pastel bikaina erosita joan ginen etxera. Lastima feria eta Gabon Zahar eguna batera tokatu izana. Koadrilan ospatzeko eguna izaten da feria eguna, eta urte zaharra aldiz, familian ospatzekoa. Datorren urtean ere gauza bera gertatuko da, eta posible balitz, feria egunez aldatzeko eskatuko nioke Udalari. Kanpotik datozenentzat, eta baita herrikoentzat ere erosoagoa izango da. Mila esker”.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Gabonei errepassoa.....

Gabonak, begiratu batean

A maitu dira Gabonak, baina askok ez dituzte erraz ahaztuko. Olentzerok eta Mari Domingik ilusioa eta opariak banatu zituzten, eta txikienek gogotik gozatu zuten kalejiran, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere. Atxutxiamaikaren lagunek talo eta txorizoa banatu zituzten, eguraldi hotzari aurre egin eta barruak berotzeko. Eguraldiak, hala ere, Gabon Zahar feriaz gozatzeko aukera eman zuen, baina ezustekorik ere izan zen: azokara ekarritako behi batek ihes egin eta ikara sortu zuen herriko kaleetan. Ihesaldian, emakume bat zauritu zuen, eta azkenean Meliton inguruan harrapatu zuten. Urteko egunik luzeena izan zen askorentzat Gabon Zahar eguna. Izan ere, goizean goiz ferian hasi, eta urte berri goizak kalean harrapatu zituen. BARRENeke argazkilaria han eta hemen ibili da, eta ondorengo orrialdeetan dituzue Gabonetako argazkirik ikusgarrienak. **Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net**






Atutxiamakaren lagunek taloak banatu zituzten Olenzero eta Mari Domingiren kalejiran.



Gabonei errepasoa.....



Mendaroko
ren harira



Manolo Sa



Jon Maia, Julio Soto eta Igor Elortza, Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso jaialdian.



Ametz Arzallus kantuan, eta Uxue Alberdi, erantzuteko zain.



Musika Eskolako gaztetxoak, Gabonetako opor-kanaini zuten jaialdian.



Osomendu zuten Inazio Bereziartua musika eskolak.



Herriko Antzokia bete egin zen abenduaren 17an Elgoibar Urban Show jaialdia ikusteko.



Jose Antonio Osoro Udal Musika Bandako zuzendariak piztu zuen jaiotza mekanikoa inaugurazio ekitaldian.

Gabonei errepassoa.....



Euskarazko Ipuin Lehiaketako sariak banatu zituzten Mendaron. Irudian, saritutako lagunak, Jesus Urbieta, Anjel Bazterretxea eta Josu Bedialaunieta epaimahaiko kideekin.



Elgoibarko kirol federatuaren urteko sariak banaketek izan behar duten lekuari buruzko mahai-irratian Mikel Valdivieso, Luis Alejos, Andoitz Agirregoa eta Josu Bedialaunieta.



Kirol federatuaren urteko saridunak, nor bere garaikurrarekin, Gabonetan egindako sari banaketa ekitaldian.



Nazioarteko Xake Txapelketan parte hartu zuten xakelariak Eskola Kiroleko Xake txapelketako lehenengo hiru sailkatuekin.



Markel Kerexeta eta Azer Mirzoev, Xake txapelketako irabazleak.



...u aurretik, mendizaletasunean lehiaz-
...gurua egin zuten. Argazkian,
...ezkorta eta Maite Maiora.

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, patinaje pista jarri zuten Leku Ederren, eta hockey txapelke-
ta ere jokatu zuten. Gaztetxoenek, batez ere, gozatu ederra hartu zuten.



10 Bai pala txapelketako ira-
bazleak eta txapeldunordeak
antolatzaileekin. Iker Beitia eta
Unai Leiaristi nagusitu ziren
finalean.



Gabonei errepassoa.....



Gabon Zahar feriako lehiaketako saridunak eta agintariek.



Presoen eskubideen alde, hiru eguneko gose greba egin zuten hainbat lagunek Gabonetan.



latzaileekin eta udal



ZORIONAK ZURI




• Zorionak, **Iker**, 8 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Goraneren partez.



• Eskerrik asko, **Victoria**, gure etxea argitu duzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Irati**, zure bostgarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ales**, zure bigarren urtebetetzean. Amaxo, aitaxo eta osabaren partez.



• Zorionak, **Ana Delia**, 8 urte bete dituzulako. Muxu bat amaxoren, Txarriren eta laguneren partez.



• Zorionak, **Maria Jesus**, abenduaren 25ean 81 urte egin zenituelako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Felisa eta Flora**, atzo 93 urte egin zenituztelako. Lagunen partez.

Erretratu bakarrek agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

MERKATU TXIKIA

LANA

ESKAERA

- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. Esperientzia handia. ☎ **943 744 433**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordu edo egunetan. ☎ **606 226 827**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **646 464 300**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **637 966 749**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **609 484 891**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo externa. ☎ **608 820 954**
- Mendaroko ospitalean gauzez gaixoak zaintzeko prest. Merke. ☎ **696 051 058**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **626 490 986**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldean, edo asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**
- Gizona pintore edo elektrizista lanak egiteko prest. ☎ **606 612 834**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak... ☎ **667 709 438**
- Neska gaztea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordutan. ☎ **678 972 690**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldean edo orduka. ☎ **618 057 967**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo tabernan lan egiteko. Asteburuetan edo orduka. ☎ **696 246 962**

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **699 619 447 / 943 743 730**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan ere bai. ☎ **618 163 061**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldean edo asteburuetan ☎ **646 821 678**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Logela bat hartuko nuke alokairuan. Arduratsua naiz, eta lanean dihardut. ☎ **636 036 656**
- Mutila alokairuzko etxe baten bila dabil. ☎ **943 031 317**
- Lau gelako etxea alokatzeko da Urasandin. ☎ **616 533 646**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. Gela batekoa edo bigakoa. ☎ **678 292 120 / 677 866 495**
- Bi logela alokatzeko dira, mutilentzat. Arropa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**
- Etxebizitza alokatzeko da Mendaron, Azpilgoeta auzoan. ☎ **685 772 494**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **651 663 642**
- Etxea salgai. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- 20 tonako Escania kamioia salgai. Lana dauka. Gaitasun profesionala behar da. ☎ **685 724 273**
- Garajea itxia alokatzeko da Madalan. ☎ **695 784 765**

- Garaje itxia alokatzeko da Jausoro Plazan, udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garajea alokatzeko da Santa Ana 49an. ☎ **660 841 767**
- Garaje itxia alokatzeko da San Roken, Telefonica parean. ☎ **943 742 931 / 660 937 529**
- Autoa salgai. Opel Astra automatikoa. Bi urte eta erdi ditu. Merke, aukera bikaina. ☎ **619 127 474**

LOKALAK

- Kafetegia alokatzeko da erdigunean. ☎ **943 740 037**

BESTELAKOAK

- Belarritakoa galdu dut. Perla zuri bat dauka. Balio handia dauka niretzat. ☎ **943 743 140**
- Vogue markako eguzkitako betaurrekoak galdu ditut Maltzagara bidean. ☎ **636 845 336**
- Tekel arrazako txakur emea salgai. 18 hilabetekoa, esanekoa eta maitakorra da. ☎ **677 097 015 (Karmen)**
- NANA eta Osasun Txartela galdu nituen orain dela pare bat aste. ☎ **943 740 365 (Begoña)**
- Bibolina galdu dut musika eskola inguruan. Aurkitu duenak, mesedez, musika eskolara eraman dezala.
- Koltxoi berria salgai. Somma Galaxi 1,60 x 1,90 visco. Merke, aukera bikaina. ☎ **629 476 427**
- 90 zentimetrotako bi oheko altzaria salgai. Oso merke. ☎ **943 743 975 (Arrate) / 645 599 810 (Mireia)**

Erretratu zaharra



1968

Aste honetako erretratu zaharra herritar batek ekarri du BARRENERA. 1968. urteko Gabonetan ateratako erretratua da, Olen-tzeroren kalejiran. Orduan ere baserritar jantzita irteten ziren umeak kalera, eta kantu kantari ibiltzen ziren. Hona hemen argazki-ko neskatilak nortzuk diren: **Goiko ilaran, ezkerretik eskumara:** Mertxe Ros, Gloria Barrutia, Inma Bilbao, Ana Untzilla, Gloria Ar-zuaga, Maite Garai eta Laura Zubiaurre. **Behean:** Maribel Ostolaza, Eloisa Zubiaurre eta Marivi Mikele.



ESKERTZA

ANA GARATE GOYARZUN

*Argi hori ez da itzali
urte zaharrakin batera,
urte berrian ere
hemen izango zera,
zure antzera
argi eta kementsu bagera.*

Seme-alabak eta bilobek, esker onez.

2010eko abenduaren 18an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



IKASTARAK	ORDUAK	HASIERA	AMAIERA	ORDUTEGIA
ESKANTZIA IBERIA				
INTERPRETACION DE PLANOS	60	18/01/2011	01/03/2011	18:00 - 21:00
SOLIDWORKS I. MODELADO Y PLANOS	30	18/01/2011	10/02/2011	18:00 - 21:00
AUTOCAD	40	18/01/2011	21/02/2011	18:00 - 21:00
METROLOGIA BASICA	30	18/01/2011	02/03/2011	17:00 - 20:00
TORNO CNC NIVEL 1 FAGOR. PROGRAMACION	40	18/01/2011	14/02/2011	18:30 - 21:00
TORNO CNC NIVEL 1 SIEMENS 810VMOD. PROGRAMACION	40	24/01/2011	17/02/2011	18:30 - 21:00
TORNO CNC NIVEL 1 FANUC. PROGRAMACION	40	31/01/2011	24/02/2011	18:30 - 21:00
FRESADORA CNC NIVEL 1 FAGOR. PROGRAMACION	40	18/01/2011	16/02/2011	18:00 - 18:30
FRESADORA CNC NIVEL 1 FANUC. PROGRAMACION	40	24/01/2011	22/02/2011	18:30 - 21:00
FRESADORA CNC NIVEL 1 HEIDENHAIN. PROGRAMACION	40	31/01/2011	01/03/2011	18:30 - 21:00
MECANIZADO EN FRESADORA CONVENCIONAL	80	24/01/2011	09/03/2011	18:00 - 21:00
PROGRAMACION DE ROBOTS ARR. (NIVEL 0)	20	18/01/2011	02/02/2011	19:00 - 21:00
AUTOMATISMOS HIDRAULICOS	30	18/01/2011	16/02/2011	19:00 - 21:00
AUTOMATISMOS PROGRAMABLES (SIEMENS I)	40	18/01/2011	21/02/2011	17:00 - 19:00
AUTOMATISMOS PROGRAMABLES (OMRON I)	40	24/01/2011	24/02/2011	19:00 - 21:00
INSTALACION Y MANTENIMIENTO DE CNC (FANUC)	20	24/01/2011	08/02/2011	17:00 - 19:00
AUTOMATISMOS ELECTRICOS CABLEADOS	45	24/01/2011	16/02/2011	18:00 - 21:00
MONTAJE Y MANTENIMIENTO MECANICO	60	31/01/2011	13/03/2011	18:00 - 21:00
METALERAKO ESKANTZIA				
DISEÑO MECANICO POR ORDENADOR. CATIA	60	18/01/2011	11/02/2011	18:00 - 19:00
CURSO DE AFILADO DE HERRAMIENTAS DE CORTE	14	31/01/2011	09/02/2011	18:30 - 20:30
NUEVA ISO 9000 : 2008	16	24/01/2011	03/02/2011	18:00 - 20:00
MS WORD	16	31/01/2011	10/02/2011	18:00 - 20:00
INTRODUCCION A LA PNL	16	12/01/2011	20/01/2011	15:00 - 19:00
INTELIGENCIA EMOCIONAL NIVEL 1. SENSIBILIZACION	16	26/01/2011	03/02/2011	15:00 - 19:00

Subentzioa eskatuko zake:

IKASTAROEN PROGRAMAZIO GUZTIA www.imh.es WEB ORRIAN AURKITUKO DUZUE

Informazioa: Eider edo Ana - IMH (Auzoa Auzoa, 1- 20870 Elgoibar GIPUZKOA)

Tfnoa: 943748266 / 943744132 - Faxa: 943744153 - imhformazioa@imh.es - www.imh.es



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



Ni ere banaiz **BARREN!**



B
BARREN

BARRENen aldeko bono-laguntza

5€

Ni ere banaiz
BARREN!

Ei ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Zk.: **0950**

Zenbaki saritua: 0950

(ordezko zenbakia: 2.903)

Saria:

**Bi lagunentzako
dastatze menua**

Belaustegi jatetxean

(Saria jasotzeko epea: hilabete)

12.540 euro lortu ditugu!

**ESKERRIK ASKO
GUZTIOI**

Ei ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

B
BARREN